

AFRIKATIK EUROPARA

Indarkeria dago itsasoz migratzen duten andreen jatorrian, bidean eta helmugan

Migrazioen errelato handietatik kanpo utzi izan dira maiz emakumeak, eta zor hori kitatzera dator Camille Schmoll (1977) idazle eta kazetari frantsesa, “Les damnés de la mer. Femmes et frontières en Méditerranée” (2020) lanarekin. Ikuspegi feministarekin eta dramari jantzi ohi zaion morbo negar-eragilea erantzita aurkeztu ditu ertzaren (Afrikatik Europara Mediterraneotik migratzen duten pertsonak) ertzak (emakumeak). Orain, Txalaparta argitaletxeak gaztelaraz irakurtzeko aukera za-

 **MIGRAZIOA** / Maddi TXINTXURRETA

Txalaparta argitaletxeak Camille Schmoll kazetari frantsesaren “Les damnés de la mer. Femmes et frontières en Méditerranée” ikerketa liburua argitaratu du gaztelaraz, Cristina Lizarbek itzulita. Afrikatik Europara Mediterraneoa zeharkatuz migratzen duten emakumeei ukatu izan zaien kontakizun konplexua dakar lan honek.

baldu du, Cristina Lizarberen itzulpenari esker. Migrazio gaitan aditua den beste kazetari batek jarri dio lanpasa liburuari, hitzaurre modura. Ane Irazabalek idatzi duenez, «migrazioaren narraitibaren ertzak» protagonista bilakatzen ditu liburu honek,

eta ez ditu ezkutatzen mugak biziraun dituztenen errealitate konplexuak eta, batzuetan, «deserosoak». Biktima eta herroirik gabeko errelato erantzia da Schmollena. Bere lanerako, Afrika ekialde eta mendebaldetik nahiz Magrebetik Europara bizirik iritsi

Camille Schmoll-en liburuaren gaztelaratutako edizioa, Txalaparta argitaletxearen eskutik. GAUR8

diren andrazko asko elkarriketatu ditu Schmollek. «Europara ematen duten itsasoko eta lurreko bideak ezagutzen dituzte guztiek, eta indarkeria eta beldurra ere ezagutu dituzte», dio idazleak liburuan. Baina bidaia egiten duten emakume horiek ez dira itsasoko korronteen edo desertuko haitzeten edo “mafien” interesen meneko trapu soil, maiz hala idatzi eta irakurri bada ere. Honela azaltzen du kazetari frantsesak: «Bai, denbora luzez, emakumeak migrazioen errelato handian falta izan dira. Penelope afrikar gisa ikusten ziren, beti haien gizonen zain, sedentario eta pazient. Kasurik onenean, beraiekin elkartzen ziren, urte askoren ostean, artaldera itzultzen diren ardiak bezala, gizonaren ondoan duten lekua berriz hartuz, batzuetan haur sorta batez inguratuta. Baina, denbora askoan, ez da hitz egin bakarrik edo, behintzat, senarrik gabe, emigratzen zutenen inguruan. Are gutxiago, Mediterraneoa gurutzatzeko arriskua hartzen zutenen inguruan: beharrezkoa da esatea gure errepresentazioak, gizon gazteak Ceuta eta Melillako alambre-hesietan edo barkuetan pilotuta erakusten dituzten irudi mediatikoek itsututa, joera maskulinoek markatzen dituztela». Errelato horren kontrara, «bidean, emakumeek erabakiak hartzen dituzte, antolatu egiten dira, beren egunerokotasuna hobetzen saiatzen dira. Bizirauleak dira, bai, baina abenturazaleak eta estrategak ere bai eta, batzuetan, liderak», zehazten du kazetariak. Schmollentzat, garrantzitsua da zehaztaper hori egitea, ibilbide horietatik migratzen duten emakumeei sarri «ukatu»



Jatorriko herrialdetik «abiatzeko arrazoiak ez dira inoiz osoki eta soilik ekonomikoak», dio Camille Schmoll kazetariak: «Motibazio politikoz beteta daude»

Mediterraneoan zehar hegoaldeko Europara iristea lortzen duten pertsonen artean, %20 inguru dira emakumeak, Migrazioen Nazioarteko Erakundearen (MNE) arabera

egin baitzaie haien migrazio historia «klandestinoek» daukaten sakontasuna.

Mediterraneoan zehar hegoaldeko Europara iristea lortzen duten pertsonen artean, %20 inguru dira emakumeak, Migrazioen Nazioarteko Erakundearen (MNE) arabera. Baina bidea egiten saiatzen diren emakumeen kopurua, portzentuak, handiagoa da, Schmollen ustez, hala iradokitzen baitute mugetan mobilizatuta dauden pertsonen. Horrek zera esan nahi du, idazlearen hitzetan: emakumeen hilkortasun tasa, itsasoan, gizonezkoena baino altuagoa dela. Kasurako, 2016an, Mediterraneoan topatutako bi gorputatik bat emakume batena zen, sexua identifikatzeko aukera zuten kasu gutxietan. Datu gutxi dagoen arren, berdin gertatzen da itsasoko zeharbidea hartu aurretik ere: emakumeek gehiago eteten dute bidea, hilik edo segitu ezinik, desertuan edo Libiako espetxeetan, besteak beste.

Europarako sarreraren eta migrazioei dagozkien auzi politiko eta sozialen lehen lerroan daudelako, eta esperientzia hartzeko leku izan direlako, Italia eta Malta hartu ditu oinarri idazleak. Itsasoko bideen artean, Siziliako kanala da hiltzarriena: 1993tik 2019ra Mediterraneoan hil ziren 40.000 pertsonen artean, erdiak bide

horretan hil ziren, eta horietako 14.000 azken sei urteetan.

ZERK BULTZATU DUEN IHESA

Sarri europarren usteak sinplistik diren arren, migrazio proiektu bati ekiteko arrazoiak askotarikoak dira, eta ez dira izaten pobreetan pobreenak hautu horren alde egiten dutenak. Egiaz, normalean, txiroenak ez dute baliabiderik bidaiaren kostu ekonomikoari aurre egiteko. Schmollek dio, adibidez, migrazio bideetan ezagutu dituela jatorrizko herrialdean, ekonomikoki, bizi-maila «egokia» zuten pertsonak.

Hala ere, hautazko eta nahitaezko migrazioen hasiera guztiek elementu bat konpartitzen dute: indarkeria, edozein dela ere bere jatorria.

Badira gatazka armatuetatik, gerra zibiletatik edo eze-gonkortasun politikoetatik ihesi dabiltzan sudandar, eritrear, somaliar, kamerundar, nigeriar, burkinafasoar eta libiarrak. Kasu askotan senideak galdu dituzte eta, sarri, alarguntzak eragiten du abiatzea emakumeen kasuan, baitzepadako ezkontzen mehatxua bizi delarik. Halako egoerek herrialdetik urgentziaz ateratzera behartzen dituzte zenbait pertsona, eta senide eta lagunaren banaketak arrailgarriak izaten dira.



Gurutze Gorriko langileak, Tenerifeko Santa Cruzeko portura iritsi berri diren pertsonak artatzen.
112 CANARIAS

Beste batzuek, aldiz, beraien bizimodu apala hobetzeko ideiarekin abiatzen dute bidaiak. Baina «abiatzeko arrazoiak ez dira inoiz osoki eta soilik ekonomikoak», Schmollen arabera: «Motibazio politikoz beteta daude, nola jatorriko gizartean emakumeek okupatzen duten lekuagatik, hala autonomia eta aitortzaren bilaketak hauspotuta». Askotan, beraz, generoaren araberrako diskriminazio eta indarkeriek eramaten dituzte andrazkoak erbestertzera. Behartutako ezkontzen eta mutilazio genitalen mehatxua, poligamia edo tratatu txarrak izan daitezke zioetako batzuk, besteak beste.

ISTORIO BAT, EZ BAKARRA

Indarkeriatik ihesi dabiltzala, indarkeriekin topo egiten dute migrante afrikarrek. Egoera hori ondo ulertzeko, Julienne kamerundarraren kontakizuna osorik erreproduzitu du Schmollek. Gordinak bizi izan zituen, baina, idazleak dioenez,

bere bizipenek beste pertsona askorenak ordezkatzeko dituzte: «Julienne asko daude».

Ezkontzera behartu zuten, hamasei urterekin, eta haurdun geratu zen. «Orduan hasi zen tortura: gizon hark asko edaten zuen, agresiboa zen», gogoratzen du Juliennek. Hamar urte egin zituen horrela, harik eta gizonaren enegarren jipoiak ospitalera eraman zuen arte, hanka apurtuta eta sabelean zuen haurra galduta. Malira joan zen, Nigeria, Benin eta Burkina Faso pasatuta, eta jabetxe batean lan egin zuen bertan, herrialde horretara iristen lagundu zion andreari zorra ordaintzeko.

«Baina egun batean, nire gizona Malira iritsi zen ni berreskuratzeko», kontatzen du kamerundarrak. Atzera ere ezkutatu egin behar izan zuen. Ordurako jendea ezagutzen zuen Malin, eta lagun baten etxean gorde zen, beste sei pertsonarekin batera. Libiara joateaz hitz egiten zuten haiek,

eta bidaiara batu zen Julienne, 25.000 frankorekin (40 euro inguru) eta bidea jakin gabe.

Sei egun eman zituzten desertua zeharkatzen. Deshidratazioak bi gizon hil zituen, eta gainontzekoek gameluen txiza edanez lortu zuten bizirik irautea. Libiara iristeko mugan, «dena» kendu zieten fusilak bizkarrean zeramatzaten gizon batzuek. «Jende ona zela uste genuen, baina egiaz dena kendu ziguten. Dena: dirua, telefonoak, dena».

Astebetera, beste talde batek hartu eta 400dik gora pertsona zegoen leku batera eraman zituen. «Etxe erraldoi bat zen», dio Juliennek. Igandeetan pasta jaten zuten; gainontzean, ogi-opil erdia goizez eta botila erdi ur. Gauez, gauero, emakumeak bortxatzen zituzten. Tuberkulosiarekin gaixotu zen Julienne eta, horregatik, etxe erraldoi hartatik bota zuten, errepede bazterrera.

Lagundu nahi zuen emakume baten eta esplotatu nahi zuen bere semearen etxean pasatu zuen astebete. Semeari harentzat lan egiteagatik dirua eskatu zionean, Julienne hiltzeko agindua eman zuen hark. Kortexe batean sartu zuten bi gizonekin, eta horietako batek zera esan zion: «Zer egin diozu gizon horri hona ekar zaitzaten? Hiltzeko bidali zaitu hona. Lagundu egingo dizut. Zu hiltzeko esan didate, baina nik ez dakit zer egin diozun gizon horri, lagundu nahi dizut. Gogorra zara. Italiara joango zara eta sendatu egingo zaituzte».

«Uretan sartu ninduen», dio Juliennek.

LIBIA BELDURGARRIA

«Afrika gurutzatzea garestia, luzea –hainbat hilabete edo hainbat urte– eta arriskutsua da. Desertuko amesgaiztoak ez

du ondorengo etaparen, Mediterraneokoaren, antzik: gosea, egarria, akidura, bidaideak galtzea... Muga bakoitza arriskutsua da», ohartarazten du liburuaren egileak.

Idazlearen esanetan, itsasoaz gain, bada bidaiaren beste leku bat zeharkatu nahi duenari era berezian eragiten diona: Libia. Indarkerien lurraldea da migranteentzat, eta han bizi izandakoak ez dituzte ahazten. «Ezagutu ditudan emakume guztien artean, Libiako oroitzapena izaten da gogorrena, mingarriena», dio Schmollek. 2009ko gertaera batek ondo baino hobeto islatzen ditu hango lazturak: Tripolitik (Libia) abiatu zen 65 pertsonadun ontzi bat Italiako Capo Passerora iristear zela, atxilo hartu zituen poliziak eta Libiara itzuli zituen. Bidaiariak adierazi zuten, Libiako espetxeetara itzuli baino, nahiago zutela Somaliako gerratera bueltatu. Denetarik kontatu diote Schmoll-i: bahiketak, torturak, anestesiarik gabeko operazioak, jendez betetako zeldak, non ur edangarria eta jana apenas dagoen... Kartzelatik ateratzeko bide bakarra dirua da, eta ez da merkea: mila euroko kostua izan dezake.

Ez dira gutxi, Libiatik ateratzeari lortu dutenean –hala gertatzen da bidaiaren gainon-

Datu ofizialik ez dagoen arren, uste da emakumeek gizonen baino gehiagotan eteten dutela bidea, hilik edo segitu ezinik, desertuan edo Libiako espetxeetan, besteak beste

Libia bidaiako inflexio puntua izaten da emakume askorentzat. Denetarik sufritzen dute hango kartzeletan: bahiketak, torturak, jendez betetako zeldak...

tzeko puntuetan ere–, haurdun edo haur txiki batekin itsasora egin behar duten emakumeak, jasan dituzten bortxaketen ondorioz.

AZKEN (AURREKO) PAUSOA

«Barkuak hauskorrek dira: etxe horietako batean zaude-nean, zaintzen zaituzten libiarrak esaten dizute barku handi batean bidaiatuko duzula. Baina itsasbazterrera iristen zarenean, eztula ere ezin duzu egin. Izan ere, ez bazara zodia kera igotzen, hil egiten zaituzte. Bai baitakite, kontatzen baduzu, etxean dauden besteek oihu egingo dutela, esan zaie-lako barku handia izango zela. Itsasertzera iristen zarenean, ez dago halakorik. Eta uretan

oinez ibiltzen zara igo aurretik. Esaten baduzu ez zarela igoko, hil egiten zaituzte», kontatu zion Juliennek Camille Schmoll kazetariari.

Ontzi txiki hartan sartu zenean ikusi zuen Juliennek lehenengo aldiz itsasoa, eta telebistan agertzen zitzaion horren antzik ez zion hartu. Goizeko 03.00etan sartu zuten barkura eta 07.30ean iritsi ziren Pozzallora zodiakian bidaiatzen ari ziren 110 pertsonak. «Emakume gehiago zegoen gizonak baino. Askok ginen», oroitzen du. Eta iritsi zen Julienne ere, nahiz eta izan zitekeen beste modu batera: 2024ko lehen sei hilabeteetan 800 pertsona hil dira Mediterraneoan.



Libiako infernutik ihesi da-
biltzan emakumeentzat, Me-
diterraneo gurutzatzeko era-
bakia hartzea ez da erraza,
Schmoll-en arabera. Aldakorra
da prezioa, baina mila euro or-
daintzera iristen dira batzuk.

Emakumeen kasuan, baina,
gero eta ohikoagoa da
“dohainik” bidaiatzea, idaz-
leak jakin ahal izan duenez.
«Zergatik bidaiatzen duten
doan oraindik ez dago argi,
baina ikusi ahal izan dut
ezen, sarritan, bortxatu egin
baitzituzten abiatu aurretik
[...]. Zeharbidea ordaindutzat
ematen da abiatu aurretik
emakumeek prostituzio la-
nak egiten badituzte; batzue-
tan hainbat astez egin behar
izaten dute», azaltzen du.

Eritreako Djuma, Mediterraneo zeharkatu ostean: «Hamar egunez ibili ginen jitoan; NATOk barku batek ikusi gintuen, baina ez zuen alerta jo»

Europar Batasuneko kontrol migratorioaren ondorioz, migranteentzat, «arazoa, ‘muga nola zeharkatu?’ izatetik, ‘mugan nola biziraun?’ izatera pasatu da», Schmollen arabera

Jendez betetako ontzia,
Libiako kostaldetik gertu.
EUROPA PRESS

Nola edo hala, Julienne beza-
la, ontzira igo eta Mediterra-
neoa zeharkatzea lortu duten
andrazkoek infernu gisa des-
kribatzen dute ur masa erral
doi hori. Gosea, beroa, egarria,
hotza, estura... pasatzen dituz-
te. «Itsasoa zoratu egin zen;
beldur handia pasatu ge-
nuen»; «guztiz harro zegoen
itsasoa, hainbat emakume
uretara erori ziren»; «bidaiak
bost egun iraun zituen bi
iraun beharrean, oso gogorra
izan zen». Halakoak eta beste
entzun ditu Schmoll-ek bizi-
raleen ahotan.

Zeharkaldian jasan behar di-
tuzten beldur eta minek, bai-
na, ez dute beti itsasoa sorbu-
ru izaten. Zenbait emakumek,
ontzi berean itsasoa gurutzatu
eta gero, anekdota bat kontatu
zioten kazetariari: «Ehun per-
tsona baino gehiago geunden
barkuan. Afrikarrek, nigeri-
arrek, somaliarrok uretara bota
nahi gintuzten. Liskar handia
izan zen, baina azkenean de-
nok geratu ginen ontzian».

Are gehiago, itsasotik eta on-
tzitik bakarrik ez, airetik ere
iritsi daiteke indarkeria. «Ha-
mar egunez ibili ginen jitoan,
helikoptero bat pasatu zen eta
ez zen geratu; NATOk barku
batek ikusi gintuen, baina ez
zuen alerta jo», kontatu zion
Eritreako Djumak Schmoll-i.

Itsasoaren kondentatuek,
gorputzak mugen orbainez

zeharkatuta, batzuetan lortzen
dute Europa iristea. Baina oi-
nak lurrean jartzeak, kasu ba-
tzuetan, ez du orekarik bermat-
zen, eta iristeak ez du
halabeharrez bidaia bukatzen.

ONGI ETORRI EUROPARA

Kontinente zaharrera, *border-
land*-era –Europak ez ditu mu-
gak, Europa bera muga da,
hainbat adituren arabera, eta
hortik ‘borderland’ izenda-
tzea–, joaten diren pertsonak
ez dute bidaia bat egiten,
zeharkaldi luze bat baizik. Be-
raientzat, ez da existitzen zir-
kulazio librerako Schengen es-
paziorik, ez da existitzen
“Europarik”, ezpada milaka za-
titan egindako artxipelago bat.
2000. urtetik hona Europar
Batasunak ezarri duen kontrol
migratorioaren ondorioz, mu-
ga, mugak, ezleku bilakatzen
dira beraientzat: ez daude guz-
tiz “hemen”, ezta beste inon
ere. Hainbesteko denbora pa-
satzen dute ezlekuan bizitzen,
ezen haien bizitzak betiko
transformatzen baitira. Hori
dela eta, pertsona migranteen-
tzat, «arazoa, ‘muga nola
zeharkatu?’ izatetik, ‘mugan
nola biziraun?’ izatera pasatu
da», Schmollen arabera.

Europako kostaldera iritsi
orduko, zuzenean ospitalera
bideratzen ez badituzte, mi-
granteak atxikitzeko zentroet-
an giltzaperatzen dituzte,
izan Maltan edo Italian, bes-
teak beste. Identifikatu, atxilo-
tu eta kanporatu edo urrun-
tzera dedikatzen dira leku
horietan, eta praktikan, «kar-
tzelak dira», baieztatzen du
Schmoll-ek. Leku horietan ere
ohikoak dira andreen kontra-
ko indarkeria kasuak, eta auto-
nomia edo intimitate zantzu
oro ukatzen zaie.

Zentro horietan gertatzen
diren indarkeriak normaliza-

tuta daudela ohartarazten du
“Les damnés de la mer” libu-
ruaren egileak, baina horrek
ez du esan nahi presoek ez
dutenik erantzuten. «Migran-
teen manifestazio eta mobili-
zazioek, baina baita egunero-
kotasunean egiten diren
erresistentzia txikiek ere,
‘gaizkiaren hutsalkeria’ ho-
rren kontra egiten dute [...].
Hala, nahiz eta estatuek leku
horiek ingeniarietza politikoa
egiteko erabiltzen dituzten,
erresistentzia moldeak espe-
rimentatzeko tokiak ere badi-
ra», dio kazetariak. Kasurako,
2013ko uztailean, Eritreako
200 emakume, gizon eta haur
manifestazioan atera ziren
Lampedusan, hatz-aztarna
eman gabe irlatik ateratzeko
eskubidea aldarrikatzeko, “No
fingerprint!” oihukatuz

Funtsean, migrante afrika-
rrak Europa iristen direnean,
Europak ahal besteko indarra
egiten du herritar horiek kan-
poratzeko edo beraien mugi-
kortasun aukerak mugatzeko.
Hala, mugetan egiten diren
sailkapen eta aukeraketa pro-
zeduren helburua da asiloa
lortuko duten pertsonak gai-
nontzekoengandik bereiztea,
azken horiek kanporatuak edo
urrunduak izateko.

Hori egiteko tresna institu-
zional ugari daude: boronda-
tezko aberriratzea –egin daite-
ke jatorriko herrialderantz edo
bideko lehenengo herrialde se-
gururantz–, birkokatzea –Eu-
ropako «asiloaren zama» esta-
tuen artean banatzea du
helburu–, edo Europarako sa-
rrera herrialdera itzultzea, Du-
blingo araudiaren bidez.

Horratx, beraz, kontinente
zaharraren apeu erakargarria:
ongi etorri *borderland*-era, bi-
daiak amaierarik ez duen leku-
ra, mugarik gabeko mugara;
ongi etorri Europara.

